

Etaparen testuingurua: Pertsonak elkarrekin ongi bizitzea sustatu nahi duen hezkuntzak beste pertsonekin harremanak izateko motibatu eta trebatu behar ditu, kontuan hartuta banako zehatzak garela eta ez talde bateko kideak. Horregatik da hain garrantzitsua onargarriak ez diren orokortzeen (eta batez ere gutxiesteek) kontra agertzea. Orokortzeak berez ez dira txarrak, baina ez dute ekidin behar beste pertsonen errealitate indibiduala ezagutzea.

## Helburuak

### Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ desegokiak diren orokortzeak, aurreiritziak eta gutxiesteak hautemateko gai izatea, berengan edo beste pertsonengan, eta horiekin lan egiteko abiapuntuak aurkitzea.

## Edukia

- ✓ Orokortzeak, aurreiritziak eta gutxiesteak
- ✓ Horiei aurre egiteko estrategiak

## Metodoak

- ✓ Orokortzeak eta aurreiritziak hautemateko ariketak
- ✓ Lekukotasunak
- ✓ Rol-jokoa, orokortzeei, aurreiritziei eta gutxiesteei aurre egiteko

## 4. etaparen trantsizioa:

Oroitarazi ikasleei azken aldian errefuxiatuen eskubideei buruz hitz egin genuela, eta elkarrekin bizitzeko behar dugunari buruz. Orain, harmonian bizitzea eragozten duten orokortze, aurreiritzi eta gutxieste desegokiei buruz hitz egingo dugu.

## Pausoa #1/1

---

### Limoi guztiak berdinak dira, ez da hala?

---

*Ariketa egokia da ikasle gazteentzat, baina zaharragoei ere pentsaraziko die. Frogatua da ariketa hau oso ongi egiten dela ikasle zaharragoekin, baita helduekin ere. Ematen du "xalo" samarra dela, baina oso entretenigarria da eta, aldi berean, oso mamitsua. Uste baduzu ariketa mota honek ikasleei sentieraz diezaiekeela "haurrak" balira bezala tratatzen dituzula, 1.2 eta/edo 1.3 pausoak aukeratu ditzakezu honen orde.*

1

Galdetu ikasleei zein diren limoi baten ohiko ezaugarriak. Idatzi emaitzak arbelean/kartel batean.

---

2

Bi ikaslek limoi bana jasoko dute. Eskatu bakoitzari bere limoiari zehaztasunez begira diezaiola zenbait minutuz eta oroitu dadila nolakoa den.

---

3

Bildu berriz limoiak eta utzi mahai batean sakabanatuta. Eskatu ikasleei berriz ere "beren" limoia hartzeko.

---

4

Ikasle askok hori ez dela posible uste badute ere (denek berdinak ematen dute!), normalean, funtzionatu egiten du!

---

5

Galdetu ikasleei ea ariketa txiki honek eta egokiak ez diren orokortze eta aurreiritziek zerikusirik ba ote duten.

---

6

Azaldu laburki zertan den:

Lehen begi-kolpean denak berdintzat jotzen badituzte ere, ikasleek “beren” limoia ezagutuko dute, eta, beraz, ohartuko dira hurbilagotik begiratu behar dela gauzak behar bezala hautemateko. Guk ere jendea sailkatzen dugu gure egunerokoan. Askok bizi izan dute “kutxa batean sartu izanaren” esperientzia, beren itxurarengatik, janzerarengatik, hizkerarengatik edo (ustezko) migrazio-historiarengatik. Aldi berean, egunerokoan, guk geuk orokortze desegokiak egiten ditugu zenbait pertsona-talderi buruz, eta horrek eragozten digu pertsona indibiduala eta zehatza behar bezala hautematea. Orokortze horiek gaizki-ulertuak eta gutxiesteak ekar ditzakete. Horregatik, garrantzitsua da nork bere orokortzeaz ohartzea eta pertsona zehatzekin behin eta berriz topaketa arretatsuak egitea, haiek beti baitaude talde osotik harago.

7

Eskatu ikasleei adibideak emateko; beren esperientzian oinarrituak badira, hobe.

## Pausoa #1/2

### Beharbada, uste baino berdintsuagoak gara?

1

Eskatu ikasleei 3 minutuko bideo hau ikusteko eta hari buruz hausnartzeko honako galdera hauek eginez (galderak → [ikasleentzako lan-orriak](#))



2

Eskatu ikasleei 3ko taldeetan beren esperientzia elkarri kontatzeko.

---

3

Azaldu laburki zertan den:

Joera izaten dugu azkarregi pertsonak taldetan sailkatzeko eta uste izateko “gu” desberdinak garela eta ez dugula “haiekin” inolako zerikusirik. Jendea kutxetan sartzen dugu. Beste pertsona hobeki ezagututa eta harekin harremanak izanda bakarrik jakingo dugu zer lotura ditugun elkarren artean eta zer partekatzen dugun.

## Pausoa #1/3

---

---

### Istorio bakarraren arriskua

1

Azaldu laburki “Istorio Bakarraren Arriskua”



Chimamanda Adichie Nigeriar idazlea ikasle gisa ailegatu zen AEBra, eta ez errefuxiatu gisa, baina irudi edo istorio jakin bati (“istorio bakarra”) lotuta egotearen esperientzia bizi izan zuen. Bere mintzaldian deskribatzen du nola bizi izan zuen finkatze eta murrizketa hori: onarpenarekiko ukatze gisa, botere-egikaritze gisa, baita bere duintasuna kendu izan baliote bezala ere.

---

2

Eskatu ikasleei bideo horri buruz hausnartzeko honako galdera hauek eginez (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

- ✓ Noizbait ere beste pertsona batzuek sailkatu naute “istorio bakar” baten arabera? Hala izan bada, zer istoriotan mugatu naute? Nola bizi izan dut eta nola

kudeatzen dut?

- ✓ Beste pertsonetikiko harremanean pentsatzen duzunean: Badut joera beste pertsona bat sailkatzeko istorio bakar baten arabera? Hala bada, nola egiten diot aurre joera horri? Eta: Zerk laguntzen nau burua zabaltzen eta beste pertsonen istorio desberdinetara irekitzen?

3 Eskatu ikasleei 3ko taldeetan beren esperientzia elkarri kontatzeko.

4 Azaldu laburki zertan den:

Joera izaten dugu berehala pertsonak istorio bakarrera mugatzeko, talde jakin bateko kideak direlako edo zenbait ezaugarri dituztelako, eta ez dugu aztertzen ea istorio hori egiazkoa den eta zein litzatekeen pertsona horien istorioa haiek berek kontatuko balute. Azkenik, hau ere oso garrantzitsua da: errefuxiatuen esperientzia da oso jende gutxi duela interesa beren istorioan edo istorioetan. Horrek elkarren arteko topaketak, trukeak eta aberastea eragozten du.

## Pausoa #2

### Orokortzeak, aurreiritziak eta gutxiesteak: nola kudeatu?

1 Eskatu ikasleei aipa ditzatela errefuxiatuen kontra izaten diren ohiko orokortze eta aurreiritziak.

2 Idatzi horiek arbelean, karteletan edo antzeko euskarri batean.

3 Galdetu ikasleei ea orokortze "hutsak" diren ala gutxieste garbiak, eta zergatik erantzun duten hori.

4 Eskatu ikasleei seiko taldeak osatzeko: talde bakoitzak bildutako aurreiritzietako bat aukeratuko du (bestela, zuk aukeratu haientzat). Sei ikasleek batera eztabaidatuko dute; hiruk leloaren alde, eta beste hiruk haren kontra. Gainerako ikasleek behatzaile-lana egingo dute. Eztabaidan ari diren pertsonen inguruan eseriko dira.

5 Talde handian hausnartzea (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

#### Aurreiritzien aldekoentzako galderak:

- ✓ Nola sentitu ziren aurreiritzia aktiboki ordezkatzeko ari zirenean?
- ✓ Nola bizi izan zituzten besteen erreakzioak?
- ✓ Zer galderak edo argudiok hausnarrarazi egin zieten edo aldarazi zieten ikuspegia?

#### Aurreiritzien kontrakoentzako galderak:

- ✓ Nola bizi izan zuten egoera?
- ✓ Nolako sentimenduak sortu ziren aurreiritzia ordezkatzeko zutenengan?
- ✓ Haien aurreiritzia ezeztatu ahal izan zuten?
- ✓ Zer lortu zuten?

#### Behatzaileentzako galderak:

- ✓ Zer estrategia erabili zituzten aurreiritziaren kontrakoek? Zer bide erabili zituzten aurreiritziaren aldekoen kontra egiteko eta haiei hausnarrarazteko?
- ✓ Zer sentimendu sumatzen ziren parte-hartzaileen artean? Nola adierazi zituzten sentimendu horiek?
- ✓ Zer emozio- eta erreakzio-mota nabaritu zenituen aurreiritziaren alde egiten zutenengan eta kontra egiten zutenengan? Nabaritu ote zenuen alde bateko ekintzek eragina izan zezaketela beste aldeko emozio eta erreakzioetan?

6 Onargarriak ez diren orokortze, aurreiritzi eta gutxiesteei aurre egiteko erronka eta estrategien laburpena (→ ikasleentzako lan-orria):

- ✓ Orokortzeak eta aurreiritziak zalantzatan jar daitezke adierazpenak zehazteko eta justifikatzeko eskatuz (adb.: galdetuz: Nola dakizu hori?) edo aurreiritzia ezeztatzen duten gertaerekin alderatuz. Horrek auresuposatzen du, hala ere, ongi informatuta egotea eta beste pertsona prest egotea argudioak/desadostasunak entzuteko. Pertsonak beti ez daudenez argudioak entzuteko prest, beti ez da posible izango beste pertsona konbentzitzea. Hala, ere "ezetz" esan dezakegu eta esan egin behar dugu.
- ✓ Aurreiritziak eta gutxiesteak modu oldarkorren adierazten dira batzuetan, eta botere-erabiltze gisa baliatzen dira. Horrek beldurra sor dezake. Horretarako, lagungarria izan daiteke beste pertsona batzuekin elkartzea, batez ere talde batean edo jendaurrean egonez gero. Baina erasoek kontra-erasoak sor ditzakete. Horregatik garrantzitsua da ahalik eta lasaien egotea (adb.: oihukatu gabe) eta, aldi berean, erabakitasunez adieraztea norberaren iritzia.

- ✓ Aurreiritziak eta gutxiesteak modu zakar eta leuntasun gutxikoan adierazi izan ohi dira. Horrek ekar dezake pertsona batek harrokeriaz jokatzera edo erasotzaileari irainak egitea. Horrek bere jarreran berretsita sentiaraziko du. Horregatik garrantzitsua da aurreiritziak eta gutxiesteak argi eta zalantzarik gabe arbuiatzea, baina beste pertsona gutxietsi gabe.
- ✓ Baieztapen bat aurreiritzi eta gutxiespen gisa jasotzen badut, batzuetan senti dezaket nire balio propioak bortxatzen ari direla (nahiz eta aurreiritziak eta gutxiespenak beste pertsona batzuekin zerikusia izan), baina beti ez naiz gai izaten unean bertan esateko zer balio jartzen ari diren zalantzatan. Erreakzio egokia eta garbia izateko, baliagarria da jakitea zer den niretzat garrantzitsua eta baliotsua. Nire balioak zenbat eta hobeki ezagutu, orduan eta hobeki defenda ditzaket.

## Hausnartzea

Azaldu etapa honetako hausnarketa-lana (Hausnarketa-lana → ikasleentzako

lan-orriak). Hurrengo etaparako, mesedez:



Marrastu egoera bat non zuk edo beste pertsona batek aurreiritziak eta gutxiespenak ezaugarri dituen jarrera bat jasan duzuen. Egiazko egoera bat izan daiteke edo karikatura bat. Egin horren argazki bat.



Idatzi zuri buruzko hiru baieztapen, zeinak baztertuko zenituzkeen, zu pertsona gisa deskribatzen ez zaituztelako edo zu zaren pertsona indibiduala errespetatzen ez dutelako.

## Laburpena eta trantsizioa

Eskatu ikasleei esaldi gutxi batzuetan azaltzeko zer ikasi duten. Zenbait lagunek beren ekarpena adierazi eta gero, esandakoa zure hitzetan laburbil dezakezu (ikusi etapa honen helburuak).

Orduan azal dezakezu nola izango den hurrengo etapa: *"Hurrengo aldian, gure ekintzetarako abiapuntuak aztertuko ditugu!"*.

# GOAZEN 6. ETAPARA